

Eskubide eta betebeharrak gaika: Zainketa aringarri integralak

12. artikulua Zainketa aringarri integralak jasotzeko eta haiek hartzeko lekua hautatzeko eskubidea.

Bizitzaren amaierako prozesuan dauden pertsonen eskubidea dute bizi duten egoeraren konplexutasunari egokitutako kalitatezko zainketa aringarri integralak jasotzeko, baita sedazioa ere.

Zainketa horien helburua terapeutikoa da hiltzeko orduan ager daitezkeen sufrimendua, mina eta beste ohiko sintomak arintzea, gaixoen bizi-kalitatea hobetuz, betiere beren sinesmenak, lehenetasunak eta balioak errespetatuz. Arreta hori eskainiko zaie ere, ahal den neurrian, gaixoarekin lotutako pertsoneri, eta gaixoa hil ondoren ere iraungo du, dolu-prozesuan.

Arreta aringarria eman ahal izango zaio bizitzaren amaierako prozesuan dagoen pertsonari bere bizilekuan edo ingresatuta dagoen egoitzan edo osasun-zentroan, eta, beharrezkoa bada, behar diren mekanismoak ezarriko dira bermatzeko laguntzaren jarraipena eta beste baliabideekin koordinatzea, betiere euskal osasun-sistemak eta gizarte-zerbitzuen euskal sistemak ezarritako protokoloen arabera ekitatezko baldintzetan.